

2020 JARDUEREN MEMORIA /MEMORIA DE ACTIVIDADES 2020

Hona hemen Fundazioak zer jarduera prestatu dituen 2020. urterako, dagozkion jarduera-ardatzen eta 2018-2020 aldirako Jarduera Planaren programa-ildoetan ezarritakoaren arabera:

Ildoa	Jarduera
1. Kudeaketa-plan estrategikoan lehen faseko (2010-2021) hurrengo urteetarako zehaztutako ildo estrategikoak martxan jartzea. Asmoa da patronatuaren eta plana ezarri behar duten teknikarien eguneroko kudeaketa-lanari zentzua ematea eta lan horiek bideratzea.	
2. Web-orria mantentzea eta handitzea, irudi korporatiboa sendotzea eta bulego birtualen aurre diseinua egitea.	-Gipuzkoako enpresentzako energiaren bulego birtualak diseinatzea. -Gipuzkoako enpresentzako ekonomia zirkularraren bulego birtuala diseinatzea. -Web-orria hobetzea eta mantentzea, berezko baliabideak sortuz. -Irudien bankua handitzea. -Berezko euskarri informatikoak sortzea.
3. Behatokiaren kontrol-gela eta zaintza-sarea diseinatzea, lurraldearen gaineko klima-inpaktuak monitorizatzeko eta inpaktu horien segimendua egiteko.	-Kontrol-gela diseinatzea. -Klima aztertzeke Europako LIFE URBAN proiektuan parte hartzea.
4. Klima-aldaketaren aurkako borrokaren (KAB) aliantza lantzea: KABen arloko Gipuzkoarako ikerketa-zentro, behatoki eta agenteak, nazionalak eta internazionalak, GKlimaneten eta Zientzia Batzordearen bitartez.	-Klima Aldaketaren Gipuzkoako Zientzia Batzordea diseinatzea eta martxan jartzea. -Tokiko GKlimanet agenteen sarea diseinatzea eta martxan jartzea.
5. Gizartearen, gizarte-pertzepzioaren eta baliabideen analisia egitea, arlo horren gaineko datuak lortzeko.	-Gipuzkoako biztanleek klima aldaketaren gainean zer iritzi duten aztertzea.
6. I+G+B sustatzea erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanerako negozio-ereduetan; zehazki, Gipuzkoan ekonomia berderako bidea egitea bultzatzen dutenetan. Hori, energia berriztagarrietan oinarrituriko trantsizio energetikoaren eta ekonomia zirkularraren alorretan.	-Azterlanak egitea.

7. Ekonomia zirkularra sustatzea, lurraldeko enpresetan barne-ekintzailetzako proiektuak babestuz, ekonomia zirkularren erronken programaren bitartez.	-Enpresen erronkak ekonomia zirkularra sustatzeko (2. edizioa). -Bartzelonako Udalera bisita egitea (Plangintza Estrategikoko Saila, Hiri Erresilienteak). -Naturklimak partzuergoan parte hartzea: Gaiker-IK4, Impact Hub, Emaus, MIK.
8. Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legearen esparruan, Gipuzkoako enpresei laguntzea eta, horretarako, zer premia dauden atzematea eta enplegua sortzeko profil profesional eta negozio-eredu berriak bultzatzea.	-SMART lurralde-klusterraren analisisa egitea. -Europako Zuzentarauetatik eratorritako Lanbide Heziketako prestakuntza-espezialitateei buruzko azterlana egitea. -TkNIKArekin lankidetzatza-hitzarmen bat sinatzea. -Gipuzkoako enpresek jasangarritasun energetikoaren inguruan egiten dituzten jardueren inbentarioa egitea.
9. Agente nagusiekin eta erakunde kolaboratzaileekin harremanetan jartzea.	-Honako hauekin lankidetzatza-hitzarmenak adostea: AEMET, AZTI, Klima Aldaketaren Bulego Nazionala, Elle MacArthur Fundazioa, EIT-KIC eta SITRA. -INEC-ekin sinatutako lankidetzatza-hitzarmenari eustea eta hitzarmena zabaltzea.
10. Klima-alaketaren inguruko nazioarteko, estatuko, erkidegoko eta tokiko foro eta sareetan parte hartzea.	-Gipuzkoa klimaren alde jardunaldia (2. edizioa). - Won 2020 biltzarra. -GENERA: Energia eta Ingurumena. -Hirien Foroa: jasangarritasuna, ingurumen-konponbideak eta hirigintza. -POLLUTEC. - INTER SOLAR. - IFAT.

2020. URTEKO AZALPEN TXOSTENA /INFORME EXPLICATIVO 2020

Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioak hainbat jarduera jaso ditu 2018-2021 aldirako Jarduera Planean, lehen urterako (2018). Alde horretatik, funtsezkoa da kontuan hartzea Fundazioa eratu ondoren martxan jartzeko ezarritako epeak azarora luzatu zirela, orduan kontratatu baitzen Zuzendaritza Nagusia. Ondorioz, neurri asko 2019. urtean jarri ditugu martxan.

Gauzak horrela, azalduko dugu aipaturiko Jarduera Planari jarraikiz 2019an zer jarduera gauzatu ditugun eta 2020. urterako zer jarduera antolatu ditugun.

1. Lehen lau urteetarako kudeaketa-plan estrategiko bat egitea eta onartzea, patronatuaren eta plana ezarri behar duten teknikarien eguneroko kudeaketa-lanari zentzua emateko eta lan horiek bideratzeko. Hori ez da eragozpen izango, ordea, patronatuak, gerora, plana bera eta planaren neurriak aldatu ahal izateko, Fundazioaren helburua hobeto lantze aldera.

2019	Alde horretatik, kudeaketa-plan estrategikoa lizitatu dugu, eta datozen hilabeteetan, ekitaldiaren amaierara arte, zehaztu egingo dugu.
2020	2020. urterako asmoa da planaren ildo estrategikoak eta jarduerak martxan jartzea.

2. Behin-behineko egoitza martxan jartzea (Miramongo parke teknologikoan dago).

2019	Fundazioaren egoitza urtarrilean jarri zen martxan. Helbidea hau da: Mikeletegi pasealekua 65, B2 eraikina, 0 solairua. Telefonoa: 943008500
2020	2020. urterako asmoa da ekipamendu teknologikoaren parte bat hobetzea.

3. Web-orria diseinatzea eta martxan jartzea, eta irudi korporatiboa zehaztea.

2019	Irudi korporatiboa diseinatu dugu, eta marka korporatiboaren eskuliburu bat dugu. Web-orria diseinatu dugu, eta urrian jarriko dugu martxan, gizarte-sareetako profilekin batera.
2020	Asmoa da web-orria mantentzea eta ardatz hauek zabaltzea: ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa eta baliabideen zentroa (toolbox).

4. Edukiak lantzea eta Behatokia martxan jartzea.

2019	Behatokiaren jarduera-arloak diseinatu ditugu, Ingurumen Sailaren Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategiaren (GKABE) edukiekin koordinatuta. Egin beharreko txostenen ereduak sortu ditugu, lehena berotegi-gasen isurpenen Gipuzkoako inbentario-txostena, abuztuko. Horretarako, agenteen eta baliabideen mapak egin ditugu, behatoki nazional eta internazionalen sarea antolatzeko. Halaber, zentro espezializatueta bisitak egin ditugu, jardunbide egokiak trukatzeko. Fundazioa LIFE URBAN proiektuan parte hartzen hasi da. AZTIrekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea planteatu dugu, Gipuzkoako itsasoaren eta itsasertzaren behaketa zehazteko. Zientzia Batzorde baten eta klimaren aldeko tokiko agenteen GKlimanet sarearen aurredeinua egitea planteatu dugu, baita Fundazioarentzako berezko irudi-banku bat sortzea ere. Azkenik, 100 neskaentzako informazio-kanpaina bat egitea proposatu dugu: Inspiring Girls Klima Aldaketa.
2020	Asmoa da kontrol-gela bat diseinatzea, Gipuzkoan klima zaintzeko sare bat antolatzeko, batetik; eta geroko Dokumentazio Zentroa eta Gela Birtuala elikatzeke, bestetik. Halaber, GKABEren adierazleen gaineko txostenak eta adierazle-sistema horren segimendua egingo ditugu. Azkenik, agenteekin eta erakunde kolaboratzaileekin ditugun harremanen segimendua egiten jarraituko dugu.

5. Renewable Energy HUBen edukiak lantzea eta martxan jartzea.

2019	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak sustatutako Energiaren Lurralde Mahaian parte hartu dugu. Energia fotovoltaiakoan oinarrituriko sorkuntza banatuaren eta autokontsumoaren testuinguruaren analisi-agiria berraztertzez amaitu dugu. SMART Office kanpaina sustatu dugu; WATTIO enpresa donostiarrekin elkarlanean sortu dugun ekimen bat da, zeinaren helburua baita Miramongo parke teknologikoko enpresek elektrizitate berdea kontrata dezaten bultzatzea. Lanbide Heziketan energiaren eta ekonomia zirkularraren arloan dagoen eskaintzaren barne-inbentario bat egin dugu; baita enpresen inbentario bat ere, eskualdeen arabera. Enpresentzako Energia Bulego Birtualaren aurredeinua egitea proposatu dugu.
2020	Asmoa da lurraldeko enpresentzako bulego birtual bat sortzea. Horretarako, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren argibideen zain gaude.

6. Circular Recycling HUBen edukiak lantzea eta martxan jartzea.

2019	Lan-ildoaren aurre-diseinu bat egin dugu, eta lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dugu Ekonomia Zirkularraren Institutu Frantsesarekin (INEC), ildo horretako eduki hauek aurrera egiteko: prestakuntza, informazioa, partaidetza, sareko lana eta Europako proiektuetako baterako partaidetza. Orobat, “enpresen erronkak ekonomia zirkularra sustatzeko” ekimena abian jarri dugu. Ekonomia zirkular integratua sustatzeko partzuergoarekin batera lan egin dugu; hauek dira partzuergoko kideak: Gaiker-IK4, Impact Hub Donostia, Emaus eta MIK. Ekonomia zirkularrari buruzko udako ikastaro batean parte hartu dugu, eta beste hau babestu: “Klima-aldaketaren erronkak: lurralde-erresilientziarako estrategiak”. Fundazioak, halaber, aldizkako berri-paperekin bat argitaratu du, GK Recyclingeko kide diren enpresei azaltzeko proiektuen bitartez nola finantzatu.
2020	Asmoa da INEC-ekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren edukiak lantzea, eta ekonomia zirkular integratua sustatzeko partzuergoarekin batera lan egiten jarraitzea; hauek dira partzuergoko kideak: Gaiker-IK4, Impact Hub Donostia, Emaus eta MIK. Halaber, “enpresen erronkak ekonomia zirkularra sustatzeko” ekimenari eutsi nahi diogu. Orobat, web-orrian “ekonomia zirkularraren bulego birtuala” izeneko atala bat sortzea planteatu dugu. Azkenik, lan-ildo hori sustatzeko beste ekintza, jardunaldi eta ekitaldi batzuk egin nahi ditugu.

7. Agente nagusiak eta erakunde kolaboratzaileak identifikatzea eta haiekin harremanetan jartzea.

2019	Agenteen eta baliabideen mapa bat egin dugu, behatoki nazional eta internazionalen sarea antolatzeko. Halaber, zentro espezializatuetara bisitak egin ditugu, jardunbide egokiak trukatzeko. Ekonomia Zirkularraren Institutu Frantsesarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dugu, lan-ildo hori bultzatzeko. AZTI-rekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea proposatu dugu, Gipuzkoako itsasoa eta itsasertza behatzeko sarea antolatzeko.
2020	Elle MacArthur Fundazioarekin eta EIT-KIC eta SITRA erakundeekin elkarlanean aritzeko oinarriak ezartzen ari gara, ekonomia zirkularra eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko.

8. Klima-aldaketaren inguruko nazioarteko, estatuko, erkidegoko eta tokiko foro eta sareetan parte hartzea.

2019	Parte hartu dugu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak sustaturiko Energiaren Lurralde Mahaian, GK Recyclingen ebaluazio-jardunaldian eta aldaketa klimatikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Legea egiteko agenteen foroan. Bisitatu ditugu Parisko INEC eta Nizako IMRED. Gainera, udako ikastaro hauetan parte hartu dugu, UPV/EHUrekin elkarlanean: "Klima-aldaketa eta ekonomia zirkularra Gipuzkoan", "Klima-aldaketaren erronkak: lurralde-erresilientziarako estrategiak", "Agenda 2030 eta garapenaren finantziazioaren etorkizuna", "Transformation, Adaptation and Mitigation for a 1.5 degree Global Warming", "Smart Rural Communities (SRC)", "Smart Ekoauzoak: garapen ekonomiko jasangarriko aukera bat", "Ozeanoa eta mugaz gaindiko lurralde-erronka kolektiboak: plastikoek eragindako kutsadura eta itsasertzeko jardueren segurtasuna", "Ingurumenaren berri ematea: nola eman ezagutzera planetaren erronka handiak", "Klima-aldaketa". Azkenik, parte hartu dugu Change the Change, ISWA eta JIEEC biltzarretan, Energia Planak eta Klima jardunaldian (LIFE PLANUP proiektua) eta Expobiomasa azokan.
2020	Won 2020 biltzarrera joatea proposatu dugu. GENERA: Energia eta Ingurumena. Hirien Foroa: jasangarritasuna, ingurumen-konponbideak eta hirigintza. POLLUTEC. INTER SOLAR. IFAT.

9. Klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.

2019	Gipuzkoako ikastetxeetarako Inspiring Girls Klima Aldaketa kanpaina gauzatu dugu.
2020	Enpresen erronkak ekonomia zirkularra sustatzeko (2. edizioa). Gipuzkoa klimaren alde jardunaldia (2. edizioa).

10. Hasierako hedakuntza-ekintzak, agente publiko eta pribatuekin harremanetan jartzeko. AKGF martxan jartzea.

2019	Bi prentsaurreko egin ditugu: a) Fundazioaren aurkezpen publikoa, eta b) berotegi-gasen isurpenen Gipuzkoako inbentarioaren berri ematekoa. Irratian bost elkarriketa egin dizkigute. Bioterra azokan parte hartu dugu, azalpen-taula batekin; eta baita Change the Change biltzarrean ere, zabalkunde-materialarekin.
2020	